



2010EKO OTSAILAREN 18KO
EZ-OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamarreko otsailaren hamarrean, iluntzeko zazpi-etan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albisu Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean, ez-ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Felix Urkola Iriarte, Xanet Barreras Jauregi, Xabier Arrasate Aierbe, Inazio Barandiaran Aldasoro, Iñaki Saldaña Herrero eta Javier Moreno González de Lara.

Amagoia Naldaiz Mingo, M^a Lourdes Garmendia Guerra, Inazio Estensoro Eskisabel, Juan Manuel Serna Portugal, Ángel Hernández Marzal eta Ricardo Crespo Rubio zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- ESTALI GABEKO IGERILEKUEN OBREN 8. EGIAZTAGIRIA.-

Joxemiel Barandiaran Udal Kiroldegiaren aldamenean eraikitzen ari diren Estali Gabeko Igerilekuak lanen obra zuzendaritza daramaten LKS Ingeniería, S. Coop.ko Javier de la Fuente Carazo arkitektoa eta Nerea Mujika Estensoro arkitekto teknikoek lanen 8. obra-egiaztagiria luzatu dute. Zortzigarren obra egiaztagiriaren zenbatekoa LAUROGEITA HAMABOST MILA ZORTZIEHUN ETA LAUROGEITA HAMAR EURO eta BERROGEITA LAU ZENTIMOtakoa (95.890,44 €) da. Lan hauek Altuna y Uria, S.A. enpresa ari da burutzen.

Udal teknikariak obra-egiaztagiri hau aztertu eta bere oniritzia eman dio.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Estali Gabeko Igerilekuen eraikuntza lanen zortzigarren obra-egiaztagiria onartzea erabakitzen du.

II.- "LAZKAOKO JOXEMIEL BARANDIARAN UDAL KIROLDEGIAN ARKITEKTURA OZTOPOAK KENTZEA" PROIEKTUAREN ONARPENA.-

LKS Ingenieria, Koop. Elkarteko Javier de la Fuente Carazo arkitektoak "Lazkaoko Joxemiel Barandiaran Udal Kiroldegian arkitektura oztopoak kentzea" proiektua idatzi du. Proiektu honen aurrekontua, B.E.Z. barne, bostehun eta hirurogeita hamar mila zazpiehun eta laurogeita hamabost euro eta berrogei zentimo (570.795,40 €)takoa da.

Proiektu hau Kiroldegiaren birmoldaketarako berariazko batzorde informatzaileak informatua izan da.

Proiektua aztertu ondoren eta Kiroldegiaren birmoldaketarako berariazko batzorde informatzailearen proposamenez, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, proiektua onartzea erabakitzen du.

III.- "LAZKAOKO JOXEMIEL BARANDIARAN UDAL KIROLDEGIAN ARKITEKTURA OZTOPOAK KENTZEA" PROIEKTUAREN ESLEIPENERAKO KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN ONARPENA.-

Udal honek "Lazkaoko Joxemiel Barandiaran Udal Kiroldegian arkitektura oztupoak kentzea" proiektua aurkeztu du Enplegua eta Toki Jasangarritasunerako Estatuaren Funtsera, funts honen kargura finantzatua izan dadin.

Enplegua eta Toki Jasangarritasunerako Estatuaren Funtsa arautzen duen urriaren 26ko 13/2009 Errege Dekretu Legeak xedatzen du Errege Dekretu Lege honen arabera finantzatutako obren kontratazioak presazko izaera izango dutela eta beste hainbat xehetasun ere ezartzen ditu kontratazio espedientearen eta bere esleipenaren jarraitu beharrekoak.

Hau horrela, urriaren 26ko 13/2009 Errege Dekretu Legeak obren kontrataziorako ezarritako xedapen hauek jasoz, lanak presazko lehiaketa ireki bidez esleitzeko kontratazio espedientea prestatu da.

Alkateak adierazten du proiektu hau Funtsean sartzeko eskakizuna 2010eko urtarrilaren 28an egin zela eta otsailaren 9an dokumentazio osagarria bidali zela baina oraindik ez dela jaso Lazkaoko Udalak aurkeztutako proiektu hau onartzen dueneko Estatu Idazkariaren Ebazpena. Bestalde, adierazten du baita ere, kopuruaren zioz kontratazio hau Osoko Bilkuraren ahalmenekoetakoa litzatekela eta beraz kontratazio espedientearen hartu beharreko erabakiak Osoko Bilkurak hartu beharko lituzkela eta beraz kontratazio espedientea onartzeko akordioaz gain bai behin behineko esleipena eta behin betiko esleipenarena ere baina kontratazioa presazko izaeraz egin behar dela kontutan izanda akordio guzti hauek oso denboraldi motzean hartu beharko lirateke eta guzti hau kontuan izanda kontratazio espediente honen onarpena eta behin behineko eta behin betiko esleipenak alkatetzarengan eskuordetzea proposatzen da.

Guzti honen aurrean, Osoko Bilkurak, gaia aztertu ondoren, eta bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, "Lazkaoko Joxemiel Barandiaran Udal Kiroldegian arkitektura oztupoak kentzea" proiektuaren lanak presazko lehiaketa ireki bidez esleitzeko kontratazio espedientearen onarpena eta kontratazio honen behin behineko eta behin betiko esleipenak alkatetzarengan eskuordetzea erabakitzen du.

IV.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpiak eta hamar direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

